



20 de marzo 2022 Campaña
de Misiones Diocesanas Vascas



2022ko. Martxoaren 20a.
Euskal elizbarrutietako misioen
kanpaina

Pandemiak geure etxeetan ateak itxita egotera eraman gaitu, ez dugu kontakturik izan besteekin eta senide eta lagun maiteen afektuaren falta izan dugu. Ahul sentitu eta beldur izan gara.

..



Apurka-apurka, egoera hau gainditzeko ari garela ematen du. Baina...

...badirudi, lagun hurkoaren irudia galtzen ari dela, pobretasun, gerra edo aukerarik ezak zauritutako, astindutako pertsonen bideari hesiak jarri dizkiote eta ez da begi-bistakoa; zirkulazio arruntetik at geratu da.



Dagoeneko ezer eskatzen edo traba egiten ez digun auzokoa, beste pisukoa, parrokiako beste bankukoa, tranbian doana ere antzematen ez badugu ere; dagoeneko ez dira hurko. Gainera, beharrak, gabeziak, herri, eliz-erakundeen edo GKEen kontu dira.


Guzti hau gertu-gertuko eremuan gertatzen bada, nola aitortu hurkotzat haratago, beren ohiko zoritxarretan, amaigabeko ibilbideetan, hondamendi naturaletan, sarraski odoltsuetan edo betiereko gabezia pandemikoetan bizi direnak?

Gizarte indibidualistak, merkataritza-gizarteak, entretenimendu hutsezko gizarteak **ahotsa itzali digute? ...**



Baina, hor dago errealitatea, temati, nekaezin, menderaezin, bide-bazterrean zegoen eta ezin isilarazi izan. Errealitateak belarriak zorrozten dizkigu; azken batean, konpromisora –hitz xarmagarri, gure bizitzak moldatu zituen gabi-deitzen gaitu.

“Com-pro-missio” hau da, itzulpen librean
“Elkarrekin -auzi beraren- alde”



Deiek durundi egiten dute gaur ere eta ezinbesteko ditugu bizitzeko, sentimendua freskatzeko, entzute honetan dagokion erantzutean datza-eta sinestedun dei dezakegun jarrera bakarra, maitasuna bizirik dela erakusten digun adierazle bakarra.


Bai, orain aldi oinazetsutik Jainkoaren Erreinurantz eta bere zuzentasunerantz, “bestearen kargu egiterantz”, Ellacuria zioen bezala.





Konpromisoa
berrituz
Renovamos el
compromiso

Konpromisoa hartzea, Jainkoak gure bizitzetan oparo isuri duen dohain eta graziari erantzuna ematea da, beti arrazoi batengatik eta amets egiteari utzi ez dioten beste pertsona batzuekin batera dela ahaztu gabe, egundoko erronkak ditugulako aurrez aurre eta beharbada bidea egiten duen hare-eskutada bat baizik ez garelako. Horrela gertatu zen Jesusekin.



Konfiantza izateko ordua da, Jainkoaren
espiritua guregan dago eta Misiora garamatza




*«Ardura zaitezte, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia
betetzeaz , eta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak».
(Mt 6, 33).*

Besoak zabalik, Erreinuaren alde jarduteko
ordua da, harrera egiteko, ahulenen alde
elkartasuna hedatzeko



Nola?

Gure elkarteen ateak gizadiari irekiz,
elkarte misiolari gara




Pobretasuna, bidegabekeria, desberdintasuna...
jasaten duten pertsonen aldarria, deiadarra
entzunez



«Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten» (Mt 25, 40)

Irteteko, abian jartzeko eta gizadi berrirantz bidean den munduaren, denona den etxearen eraikuntzan konprometitzeko prest izanik



Oinazetan daudenen egoera aldatzeko konpromisoa hartu

Gizaki, herri eta kultura bakoitzean Jainkoare...
Maitasunaren lekuko izanik

Geure burua itxaropenez betez!





Misio-konpromiso honi eusten lagunduko digun esku gehiago behar dugu. Misio-deia entzuteko gauza izango diren eta duela 70 urte ingurutik hona hiru euskal elizbarrutien funts bihurtu den egiteko honekin bat egingo duten pertsonak



Berri dezagun gure konpromisoa
munduaren, gizon-emakume txirotuen,
elkartasunaren, Jainkoaren Erreinuaren
eta biziaren alde

Gure misio-konpromisoa berritzeko
ordua da



Misioa, gizon eta emakume guztien
duintasuna aitortzea da, lurreko
txirotuen alde egitea, senidetasuna
eraikitzea. Fratelli Tutti. Francisco Aita Santua

Jainkoak dei egiten die gaur ere, atera eta beste hainbat
testuinguru eta errealitateetan beren fedea beste batzuekin batera
bizi nahi dutenei. Dei batek ez du bestea galarazten. Ezinbesteko
dira denak. Uzta handia da eta langileak gutxi dira. *(Mt 9, 35-38)*

Euskal Elizbarrutietako Misioak erakundea, gure Elizbarrutien konpromisoa da Eliza ahizpekiko misio-lankidetzara bideratzeko eta elkartasun eta misiorako bokazioak sustatzeko. Hauek dira horretarako bitartekoak: • Misio-suspertzea • sentiberatasuna pizteko kanpainak • misiolarien heziketa, bereizketa eta bidalketa • Elizen arteko lankidetzaren hitzarmenak • egitasmo solidarioak • misio-esperientziak • argitalpenak...

Parte har ezazu!!

Laguntzeko bideak:

- Zure parrokian, misio-taldeetan parte hartuz. Misioetarako Ordezkaritzarekin hartu-emanen jarri
- “Los Ríos” aldizkariaren harpidedun eginez. Lau hilez behin kaleratzen da agerkari hau, misioen inguruko berri emanez eta sensibilizatzeko bitarteko bezala • Elizbarrutiko Misioen egunez –San Jose eguna- egiten den diru-bilketan lagunduz
- Dohaintzak eginez edo, hainbatek egiten duenez, herentzia eta legatuak utziz

Konpromisoa berrituz



20
Marzo
Martxo

RENOVAMOS EL COMPROMISO

KONPROMISOA
BERRITUZ

LAGUNDU

BILBAO Barria, Plaza Barria, 4-2. - 48005

misiobi@bizkeliza.org / 94 401 36 99

KUTXABANK 2095 0000 71 2000055574 BIZKAIA

Bizum 00 897

DONOSTIA - SAN SEBASTIAN Bartzelona etorb., 2

(Iesu eliza) – 20014

idazkari@missio.eus / 943 42 77 54

KUTXABANK 2095 5001 05 1060685889 GIPUZKOA

Bizum 00931

VITORIA – GASTEIZ Vicente Goikoetxea, 5-3. - 01008

misiovit@misioak.org

945 13 08 57

KUTXABANK 2095 3150 22 1091093376 ARABA

Bizum 01984